

Udal Taldea.

Kale Nagusia, 20
20280 HONDARRIBIA

MARTXOAK 8

Gizarte Zerbitzuek emandako datuen arabera 2012 urtean zehar 20 emakume hondarribiarrek salatu zuten Irungo Ertzaintza Buruzagitzan indarkeria motaren bat jasan izana (genero arlokoa nahiz etxe arlokoa), hau da, 2011n baino lauk gehiagok; gainera 9 emakumek babes agindua dute.

Datu horietan ez daude sartuta 2012ko irailaren 8an Kale Nagusian Jaizkibel Konpainian desfilatzen ari zirela iraindu eta eraso zituzten emakumeak. Gertaera hori duela 16 urtetik urtero errepikatzen da. Ikerketek diotenaren arabera, indarkeria matxista jasaten duten emakumeen %20 bakarrik ausartzen da salaketa bat jartzera. Orduan, zeren zain dago gobernu taldea genero indarkeriaren aurkako egiazko prebentzio egitarau eraginkorrak martxan jartzeko? Izan ere horixe da emakumeek jasaten duten menpekotasunaren adierazgarririk bortitzena...

Berdintasunaren Zuzendaritzak Gipuzkoako udalei berdintasun teknikaria kontratatzeko %100eko bitarteko diru-laguntza eskaini die. Diru-laguntza eskuratzeko bi funtsezko baldintza daude: Berdintasun plana eta teknikaria izatea. Gure udalak ez du ez bata eta ez bestea betetzen.

Bilduren ustez konponbidea ez da “udal politikako eremu guztietan emakumearen presentzia eta eragina areagotzea”, gobernu taldeko kideek haien erakunde adierazpenean dioten bezala. Hondarribian berdintasun plana eta berdintasun teknikaria behar dira, lana kudeatzeko eta hainbat balore lantzeko, besteak beste lankidetzatza, elkar laguntza, begirunea eta emakume eta gizonen arteko oreka; izan ere, balore hauek emakumeek jasaten duten menpekotasun eta indarkeria sortzen dituen eredu patriarkalaren aurkakoak dira.

Hondarribia, 2013ko martxoaren 11a.

BILDU UDAL TALDEA